



## Amasako ur biltegia inauguratu dute Aldundiko eta udal agintariek

**LANA** ▶ Bost hilabetetan burutu dute lana eta 317.000 euro kostatu da lana; urte bukaeran, Villabonakoa ▶ 4



Aldundia, Udala, Ur Kontsorzioa eta enpresako ordezkariak atzo inauguratutako ur biltegi berria. HITZA



## McKinley igo dute 'Boli'-k, Aizpuruk eta Navasek

**IBARRA-GAZTELU** ▶ Astelehean lortu zuten Ipar Amerikako gailurrik altuena; beste taldekideek ere saiakuntza egin nahi dute ▶ 6



### INFORMATIKAKO ZIKLOAK. GOI ETA ERDI MAILA

"Zure helburua  
lan egitea bada..."



### BENETAKO PROFESIONALA IZANGO ZARA

**ESKEINTZA:**

- 20 urte informatikako profesionalak hezituz.
- Informatikako Ingeniariak irakatsia.
- Azken belaunaldiko ekipoa eta programak.

**MATRIKULA ZAITEZ!**  
943 316 900



**Cebanc-Cdea**  
FORMACIÓN PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA  
Berio Pasealekua, 50 • [www.cebanc.com](http://www.cebanc.com)

laguntzailea:

**hitza**

SANJOANAK ▶

# Handitasuna erakutsiz

Aurtengo San Joan jaietako egitarau «zabala» aurkeztu dute udal ordezkariak



Olatz Peon alkateordeak, Andoni Iturzaeta Kultur eta Jai zinegotziak eta Jokin Monfort jai teknikariak aurkeztu zuten atzo egitaraua. I. ETXEBESTE

## IRATXE ETXEBESTE

«Lehenik eta behin, barkamena eskatu behar diegu eskualdeko, eta, gutxienez, Gipuzkoako gainerako herriek, aurtengo sanjoanetarako prestatu dugun egitaraua gaintitzea ezinezkoa izango delako». Barre artean, baina hitz horiexekin hasi zen atzo Tolosako Udaleko Kultur eta Jai zinegotzi Andoni Iturzaeta herriko festak aurkezteko antolatutako prentsaurrekoan hizketan. Areago ere joan zen: «Ausartuko nintzateke esatera inoizko jairik sendoenak izango direla datozen hauek».

Eta egia esan behar bada, egitarauari erpreparatu gero ezin da besterik ondorioztatu, datorren larunbatean, hilaren 18an hasi, eta hurrengo igandera arte —hilak 26—, ekitaldi zaparrada izango baita herriko leku eta txoko askotan; adin guztietako herritarrentzako modukoak izango dira, gainera. Ildo horretatik, ez da kasualitatea jai horietarako udal ordezkariak aurrekontua handitu izana: gutxi gorabehera, 114.000 euro kostatuko dira aurtengo sanjoanak.

«Batez ere Inauteriak direla eta da kanpoan ezagun gure herria, baina Inauteriak Inauteriak dira, eta festa nagusienak izan arren, ezin dira herriko jaiekin alderatu», zioen Iturzaetak. San Joan jaiak indartzeko ahaleginetan ari direla,

## Autobus zerbitzua gauez

Sanjoanak indartu behar bada, ezinbestekoa da Tolosako, eta, orohar, eskualdeko herritarrek, egun horietarako antolatuta dauden ekitaldietan parte hartzea. Horren jakitun, zerbitzu berezia jarri nahi izan du Udalak eskualdeko herritar guztien eskura, eta, hala, autobus zerbitzua antolatu dute sanjoanetarako.

Egunero egunero eskualdeko herriak zeharkatzen dituen Tolosaldea Bus-ek mantendu egingo ditu egunean zehar

eta helburu hori lortzeko aurtengoan «saiakera berezia» egin nahi izan dutela ere azaldu zuten, «sanjoanek ezin dutelako Inauterietan itzal izan».

Egitarau oparoaren berri ere eman zuten Kultur eta Jai zinegotziak atzokoan, eta, berrikuntzak nabarmentzerakoan, lau esparru bereiztu zituen. Alde batetik, patroliaren inguruan egiten diren «ospakizun folklorikoek» urteroko haririk jarraituko dutela azaldu zuten: «Eskema bera mantenduko da, baina aipatzekoa da konpainia berria aterako dela eskopetarietan, eta horrek asko poztzen gaitu, San Joan eguna urtetik urtera sustraituz doala esan nahi duelako».

Musika emanaldiez, bestalde, luze jardun zuten Iturzaetak.

egiten dituen ibilbide eta ordutegi guztiak, eta, horiez gain, beste batzuk ere eskainiko ditu, gauez. Alegia, Berastegi eta Villabona aldera hiru linea berezi jarrita, Udalak aurrera eramaten duen «zerbitzu publikoaren aldeko apustuarekin bat egingo du, eta garapen jasangarriaren alde ere beste hainbeste egin».

Ordu horietan autoa hartu behar ez izatek berak mesede egingo die, gainera, Tolosalda dotozeneri. ◀

Talde mordoia etorriko dela, eta gazteek ez ezik, helduek ere zer hauta izango dutela zioen: «Sanjoanen bezperatan hasiko dira kontzertuak, azoka bereziaren egunean, alegia: Jean Mixel Bedaxagari, Mikel Urbeltz, Magali Zubillaga eta Philippe de Escurra ariko dira egun horretan Plaza Berrian». Ondoko egunetan jardungo dutenatik Tolosako Humus, Lobo Electrico eta Jone taldeen emanaldia —San Joan bezperan—, Tomas Moreno *Tomasito*-ren eta Urko kantariaren saioa eta Sex museum eta Brigada kriminal taldeen kontzertu —San Joan Egunean— eta Imperial de Nochistlan mariachi taldearen kalejira —larunbatean— aipamarratu zituen, beste batzuren artean.

## Ikuskizunetan, aukera

«Haurrak zaindu beharreko elementua dira jaietan ere», eta haietako ekimenak egunero izango direla iragarri dute udal arduradunek. Kanean ez bada Leidorren, pailazoak, jolasak... antolatu dituzte txiki-entzatzat. Kirol aldetik eskaintza anitza egin dute —(txirrindulariak, pilota, xakea, futbola, saskibaloia... zaletu guztientzat bada zer edo zer)—, halaber, eta ekitaldi horien guztien artean bi izan zituen aiputan Iturzaetak: Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak 25. urterrena betetzen duela eta eskola horri eta, bereziki, Isidro Larrañaga «maisuari» berari egingo zaion omenaldia, bateatik, eta Txinparta elkarteak 75. urteurreneko ekitaldien baitan antolatu duen pintura lehiaketa, bestetik.

«Iaz berreskuratu ziren batelak» garrantzia emanez, berrikuntzak izan badirela esan dute udal ordezkariak. Su artifizialen orain arteko bi emanaldien lekuan hiru izango dira aurtengoan: sanjoanetako «hiru egun garrantzitsuetan». Zezenketen harira hiru jardueratik bat errektorietara izango da, «odol jariorik gabekoa», eta zezentxoekin beharrezan zezen handiekin izango da. Azkenik, Et Incarnatus orkestrak kontzertua eskainiko du Urkizun 22an. «Hitzordu polita da, musika zaleentzab».

KULTURA ▶

## Ibilgailu Klasikoen XI. Erakusketa, gaur eta bihar

Ferialekuan izango da goiz eta arratsalde; ekimen ugari antolatu dituzte azoka dela-eta

### I. ETXEBESTE

Ibilgailu Klasikoen XI. Nazioarteko Erakusketa gaur hasiko da Ferialekuan eta bihar iluntzean emango diote bukaera. Azoka horren baitan, baina, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalen laguntzarekin: besteak beste, moto klasikoen erakustaldia, II. Oria Zirkuitua, Ander Vilariñoren eskutik lehiaketetako karts-en erakustaldia —horiek denak gaur bertan— eta motor produktuen azoka izango dira.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egotza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

POLITIKA ▶

LEIRE MONTES

# EAJ: «Gestio parte-hartzailea eta eraginkorra izan da gurea»

Bi urteko balantzea egin du alderdiak; kideen esanetan, «lehiatasuna, borondatea, parte-hartzea eta eraginkortasuna» izan dira gestioaren ardatzak

«Lehiala, borondatezkoa, parte-hartzailea eta eraginkorra». Hala definitu zuen Jokin Bildarratz alkateak EAJ bere alderdiaren orain arteko gestioa. Legegintzaldiko bi urteen balantzea —hilaren 14an beteko dira bi urte— egin zuen, herenegun, Tolosako EAJ-k, eta pozik agertu ziren kideak «egindako lanarekin». «Prentsari eta lan taldeari eskerrak» eman zizkien Bildarratzek, «Tolosa Gipuzkoan erreferente egiteagatik».

Koalizioan aurkeztea ez zela «zoritzarrez» posible izan gogoratu zuen alkateak, baina «koalizioaren eta bai EARekin bai IU-EBrekin elkarlanaren aritzeko apustua» egin dutela azpimarratu zuen. «Guztien lana eskertu nahi dugu, eta aurrera begira hala jarraituko dugula adierazi».

Ezker abertzalearen inguruan, «EAJko kide garen heinean, Alderdien Legearen aurka» daudela azpimarratu zuen, eta Tolosa Bizirik-i «beti eskua luzatuko» dietela. Dena den, baldintza bat jarri zuen: «Koakzio-rik eta irainik ez dugu onartzen. Elkarrikketa da bidea». Bestalde, TB «parte hartu dezakeena baino askoz gutxiago parte hartzen» duela esan zuen. «Borondate politikoa eskatzen digutela. Eta badugu. Beste muga batzuk daude, eta denen artean saiatu behar dugu horiek gainditzen».

## Balantzea, arloz arlo

Andoni Imaz Kirol zinegotziak hartu zuen hitza ondoren. Usabal Kirol eta Aisialdi gunea izan zuen ardatz, haren esanetan, bi urte hauetan proiektu horretan jarri baitute indarra:

«Ez ditugu beste arloak alde batera utzi, baina Gipuzkoarentzat eta Euskal Herriarentzat erreferente izango den kalitateko gune modernoan murgilduta gaude».

Olatz Peon alkateorde eta Obretako zinegotziak zenbait proiektu garrantzitsu azpimarratu zituen, ondoren: urbanizazio lanak, azpiegiturak... Horien artean, landa auzoekiko harremana izan zuen hizpide: «Auzoen mahaia osatu dugu —Bedaio, Montezkue, Aldaba...—. Orain, arau subsidiarioen errebisioaz ari gara haiekin, eta diagnosia egin nahi dugu auzo bakoitzarekin». Amaro azuozarekin ere hitzarmena sinatzeko asmoa dute, finantziario plan bat aurrera eramateko. «Gainera, urbanizazio gaien 2007ra bitarteko egutegia aurkeztera konprometitu ginen, eta sanjoanetarako aurkeztuko diegu. Aurrera begira, auzo guztiekin egin nahi dugu gauza bera. Tolargiko subestazioa eta Bidebietako pantaila akustikoa ere aipatu zituen. Azkenik, Leidorren eraistea Construcciones Etxaide-ri esleitu dituela esan zuen Peonek; uztailean hasiko dira botatzen.

Gasze Topagunearren arrakasta goraiatu zuen Itxaropena Urkiola Gazteria zinegotziak: «Herri eta eskola askotako gazteak etortzen dira



Ezker-eskuin: Aldazabal, Andueza, Urkiola, Azkue, Peñagarikano, Imaz, Peon eta Bildarratz, udaletxeko arkupeetan. L. MONTES

topalekura, eta 80-90 lagun inguru elkartzen da astebururo. Oso pozik gaude». Aurrera begira, Gasze Foro sortu berriak hala proposatuta, ekintzat bi taldetan banatuko dituzte: gaztetxoentzat eta nerabeentzat. «Indartsu dator Gasze Foroa. 16-17 urte bitarteko gazteak gauzak egiteko ilusioz daude».

Yurre Peñagarikano Alde Zaharreko zinegotzia ere pozik agertu zen guneko merkatarien eta herritarren jarrerarekin. Haren esanetan, «parte-hartze handia izan da, eta behin baino gehiagotan ikusi ditugu elkar hartuta ekintzak

antolatzeko». Zentzu horretan, Batzorde Mistoaren irudia baloratu zuen. Haren esanetan, «denon artean Alde Zaharra- ren irudia hobetzen ari gara». Bi urte hauetan argitasuna hobetu eta paperontziak eta informazio panelak jarri dituzte, besteak beste. «Kaleetako errotulazioa berritzea, Alde Zaharra ezagutarazteko liburuxka argitaratzea eta Errota inguruan Tolosako Parke Arkeologikoa Aranzadirekin batera sustatzea» dira aurrera begira- ko erronkak.

Mugikortasun Planaz jardun zuen ondoren Joselu Andueza Ingurumen zinegotziak. Haren

iritziz, «garraio publikoa sendotzen ari da, eta hilero 13.000-14.000 lagunek erabiltzen dute hiribusa. Gainera, ikastetxeetara iristea lortu dugu, era iralean Usabaleraino luzatuko dugu ibilbidea. Bidegorriaren lehen fasea (6 kilometro) martxan dela gogoratu zuen Anduezak, irisgarritasun plana bide onetik doala, eta trafikoaren kopurua eta abiadura murriztea lortu dela.

TAOri dagokionean, «hasieran kezka sortu zuen sistema erantzun positiboa» izaten ari dela esan zuen Jon Aldazabal zinegotziak. Bildutako dirua «garraio publikoa finantziatzeko» erabiltzen dela gogoratu zuen, era berean.

Jokin Azkue Ogasun zinegotziak, azkenik, inbertsioen eta aurrekontuen datuak jarri zituen mahai gainean. Pisu handiena inbertsioek dutela azpimarratu zuen, 40 milioi euro 2003-2007 bitartean. «Ezohikoa da hori. Esan behar dugu inoiz izan ez ditugun diru sarreerarik handienak ditugula orain». Aurrekontuaren %40 inbertsioerako dela jakinarazi zuen. «Malgutasuna ematen digu horrek, aurrezten dugunarekin zorrari errez aurre egiteko moduan gaude. Aurrekontu osasuntsua dugu». 2004ko aurrekontua itxi berri dute: 30 milioi euro, kontsolidatua.

MERKATARITZA ▶



## Alde Zaharreko 160 merkatarik, bat eginik

L. Montes ▶ Alde Zaharreko Dendak elkarte osatu berri dute Alde Zaharreko zenbait merkatarik, eta sanjoanetarako kanpaina martxan jarri dute. Dendetan txartelak banatuz, globo aerostatikoan ibiltzeko aukera eskainiko diete bezeroei hilaren 18an. Alde Zaharreko 160 merkatarik egin dute bat promozio berri hau aurrera eramateko. I. ETXEBESTE

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Autoa.** Clio 1.9D salgai. Egoera onean. 665 72 30 68.

**LANA**

**Tabernaria.** Tolosaldeko neska bat udan tabernan lan egiteko prest dago. Esperientziaduna. 650 66 20 35.

**Etxeko lanak.** Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Orduetgia: asteleheneetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara. 600 euro + Gizarte Segurantzak. Erreferentziak guztiz beharrezkoak dira. Bidali 240 Posta Kutxa, 20400, Tolosa.

**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

AMASA ▶ AZPIEGITURAK

# Ur biltegia inauguratu dute agintariek

Bost hilabetetan egin dute eta 317.000 euro kostatu da lana



Foru Aldundiko, Udaleko, Ur Kontsorzioko eta enpresako ordezkariak ur biltegi berriaren aurrean. HITZA

## ERREDAKZIOA

Garapen Iraunkorrerako foru diputatu Luis Mari Oiarbidek Amasa auzoko ur biltegi berria inauguratu zuen atzo eguerdian. Azpiegitura horri esker, urez hornituko da Villabonako auzo hori. Lanak bost hilabetetan egin dira eta 317.000 euroko kostua izan dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ur Kontsorziokoak finantzatu dute lana erdibana.

Azpiegitura berriak 250 metro kubiko ur hartzen ditu.

Amasako 170 bat biztanleei ur zerbitzua emateko eta inguruko sute aukerei aurre egiteko «nahiko ur», Aldundiko ordezkarien iritziz.

### Villabonakoa, urte bukaeran

Biltegi zaharraren ordez egin da berri hau, nahiz eta oraingo zaharretik hartuko den ura. Villabona herri osorako egiten ari diren azpiegitura bezalaxe, Amasakoa ere Ibiur utegiaren sisteman sartuko da laster.

Aurreko martxoan hasi ziren 4.000 metro kubikoko ur biltegi egiteko lanak. Guztira 1,7 milioi euroko aurrekontua izango du eta urte bukaerarako amaituta egongo dela uste da.

Hona hemen Ibiur sistema dela-eta geratzen diren lanak: Tolosako ponpaketa etxola, Asteasuko ur biltegia, Anoetako ur biltegia, araztegia, Adu-nako adarra, sistema osoaren teleagintea, Hernialderako adarra Ibiurtik abiatuta eta Tolosako auzoetarako adarra.

ZIZURKIL ▶ UDALA

# Udal zerbitzuak pribatizatzea salatu dute

Herriko berdegune publikoak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko lehiaketa atera dute

## ERREDAKZIOA

Udaleko langile asanbladak udal zerbitzuak pribatizatzearen aurka agertu dira ohar baten bidez. Hilaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak Zizurkilgo berdeguneak mantentzeko zerbitzua kontratatzeke lehiaketa argitaratu du. Lehiaketa hori gauzatzearekin «lorenzaintza zerbitzua ez du Udalak eskainiko, enpresa pribatu baten esku geldituko da», azaldu dute langileek.

Erabaki horren aurrean «desadostasunik tinkoena» adierazi du langile asanbladak eta arrazoi ugari aipatzen dituzte, nagusiena «zerbitzu publikoa mantentzea» izanik. «Herriaren mantenuko lan hauek Udalak zuzenean, udal langileen bidez, egin behar dituela iruditzen zaigu, eta ez enpresa pribatuaren esku utzi», azaldu dute.

Indarrean dagoen 2002 eta 2003 ekitaldietarako hitzarmen politikoan «zerbitzu publikoei eutsi eta hobetu» egin-gotuztela omen dio foru eta toki administrazio eta sindikatu guztiek sinatutako hitzarmenak.

Zerbitzu publikoa galtzea ez gain, «hainbat zizurkildarrek ere herrirako lan egiteko aukera» galduko dutela diote. Udalak zizurkildarrez osatutako lan poltsak dituela indarrean gogoratzen dute, eta horiek direla «gaur egun eta aurrerantzean, denboraldi baterako beharrak osatzen dituztenak». Behar asko lorezaintzakoak izaten direla aipatzen dute eta pribatizatzearekin aukera asko «bertan behera» geratuko omen dira. Bukatzeko, interesa dutenek helegiteak aurkezteko zortzi lan eguneko epea dagoela informatzen dute.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

# Zuhaitzei eta sagardoari buruzko jardunaldiak

Mendikoi Fraisorok antolatutako hilabete honetan, profesional eta zaletuentzat

## ERREDAKZIOA

Mendikoi Fraisoron sagardogintzari eta arbolazaintzari buruzko Jardunaldiak antolatutako hilabete honetan.

Euskal Herriko Arbolazaintza IV. Jardunaldiak ekainaren 14an eta 15ean izango dira 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Zuhaitzen balorazio ekonomikoak egiteko erabiltzen den Granadako Norma nola erabili, hiri zuhaitzen onurak, istripu arriskuak nola baloratu eta Gipuzkoako zuhaitz babes-tuen egungo egoera profesionali ezagutzera da helburua.

Arbolazaintzaren gestio esparruko teknikari eta ardura-dunei, bai enpresa pribatu eta publikoetakoak, eta udal teknikariei daude zuzenduta jardunaldiak.

Sagardoari buruzko 3. Formazio Jardunaldiak ekaina-

ren 15etik 30era izango dira, sagardo egile profesionalentzat, zaletuentzat eta arlo horretan hasi nahi dutenentzat.

Hasi berriei oinarritzko formazioa ematea, egileen formazio teknikoak hobetzea, gaur egungo ikerketak eta horien aplikazio praktikokoak ezagutzea, merkaturatzeko bide berriak eta merkatua aztertzea eta sagardoaren kulturaren sakontzea eta esperientzia berriak aurkeztea dira jardunaldi hauen helburuak.

Sagardogintzaren prozesua Domingo Arina irakasleak emango du 15etik 21era. Marketinga eta kudeaketa komertziala Silvia Angueirak emango du 23an eta 24an. Ikerketari buruzko jardunaldia ekainaren 28an izango da. Azkenik, sagardoaren kulturaz ekainaren 30ean ariko dira. Jardunaldi guztiek 09:00etatik 14:00etarako ordutegia dute.



HITZAren egoitzan salgai

UDA HONETAN JANTZI EZAZU HITZAAREN KAMISETA

ORENDAIN ▶ KIROLA

# Euskadiko Sega Kanporaketa izango da bihar Zubeltzun

Jesus Maria Ormaetxea, Andoni Zuriarrain eta Unai Berriozabal ariko dira aurrez aurre, 17:30etik aurrera

NOELIA LATABURU

Herri kirolen zaleek hitzordua dute bihar Orendaingo Zubeltzu azpi zelaietan, bertan izango baita Euskadiko sega kanporaketa. 17:30ean emango zaio hasiera ikuskizunari eta Orendaingo Jesus Maria Ormaetxea Urki, Andoni Zuriarrain eta Unai Berriozabal ariko dira aurrez aurre. Kanporaketa honek bi segalari sailkatuko dira finalerdietarako, orduerdian kilo gehin mozten dituenak, alegia. Ondoren, Araba, Bizkaia eta Nafarroako kanporaketa sailkatuko diren beste seirekin lehiatuko dira finaleko txartela lortzeko.

Ormaetxea Urki etxean jokatuko du biharko kanporaketa eta lan txukuna betetzea espero du. «Lehen aldiz ariko naiz etxean eta presioa ere handiagoa izan daiteke». Maila gorenean aurkitzen da Orendaingo, hala ere, bere esanetan, «oraindik ikasten ari naiz eta teknika falta zaib». Segak kirolaren egoeraren gainean beste kirolekin alderatuz jarraipenik ez duela adierazi du Urki, «sariak ere oso txikiak dira».

Sega kanporaketa dela-eta, Orendaingo Udaletik jakinarazi



Urki orendaindarrak bost urte daramatza segan lehiatzen. HITZA

zi dute Orendaindik Abaltzisketara doan errepidea bi zentzutan moztuko dutela, 16:00-etatik 19:00etara.

Bi aste beranduago, ekainaren 26an, berriz, Gipuzkoako sega kanporaketa izango da Mikel Aranalde, Juan Manuel Erasun, Jesus Maria Ormaetxea Urki eta Andoni Zuriarrain segalariak, azken biak bigarren aldiz ariko direlarik.

JESUS MARIA ORMAETXEA ▶ SEGALARIA

«Segan maila altua mantentzeko kemen handia behar da»

Urki orendaindarra bihar Zuriarrain eta Berriozabalen aurka ariko da etxean eta konfiantzarekin ailegatzen da probara. **Zer moduz ikusten duzu zure burua biharko kanporaketari begira?**

Gogor entrenatu dut eta finalerdietara igarotzea espero dut. Nik saio on bat burutzera joango naiz, gerora begira.

**Zer helbururekin aterako zara igandean?**

Duela 5 urte segan hasi nintzenetik finalera igarotzea lortu dut beti ere, baina behin bakarrik eskuratu dut txapela, izan ere beti bigarren geratzen naiz. Helburu, beraz, lehena izatea dut.

**Eta nolakoak dira aurkariak?**

Kanporaketa hau da denboraldiko lehena eta ez da jakiten aurkariak nolako forma fisikoa duten. Bihar ikusi beharko dut, dena den, ez dut uste arazo handirik izango dudarik.

**Zer maila ikusi duzu aurreko**



N. LATABURU

**urteetako Euskadiko kanporaketetan?**

Argi dut kirol honetan kemenik gabe ezin dela aritu. Nik lan handia egiten dut urte guztian zehar denboraldian prest egoteko. Segalari batzuk hila-bete gutxi batzuk lehenago hasten dira eta horrela ez dago maila mantentzerik. Beste batzuk, aldiz, oso gogor aritzen dira. Denetarik dago. ◀

AZPIEGITURAK ▶

## GI-2131 errepidea zaharberitzeko lanak

Ikaztegieta eta Alegia arteko zatiko lanak 591.000 euroko aurrekontua izango du

N. LATABURU

Diutatuen Kontseiluak GI-2131 errepidearen hiru kilometroko zati batean, Ikaztegieta eta Alegia artean, bidezoruaren egitura zaharberritu eta bizikleta erreia egiteko lanak enkantera ateratzea onartu du.

Lan horiek 7.865 eta 10.545 k.p.en arteko zatian egingo dira, hau da Ikaztegieta zehar

harbidean. Proiektu horren bidez adierazitako bide zatiko zorua zaharberrituko da eta galtzadaren ezker aldean 2,6 metrotik gorako zabalera izango duen bizikleta erreia egingo da, galtzadatik bereizteko zintarri bat eta behar diren seinaleak jarrita.

Lan horien aurrekontua 591.000 eurokoa izango da, eta gauzatzeko epea, berriz, lau hilabetekoa.

**MUNDU BAT HAMAIIKA LEKU**

**18 bidaia txina karibe andaluzia mallorca kantabria**

**Ekainaren 19tik aurrera**

Kupoi guztiak bilduz gero, autorako eguzkitokoa jasoko duzu apart.

**berria**

Agurak: **EROSKI** / bidaiak

**berria**

Erakaldarriak behar izan

**berria**

## IBARRA ▶

III. Langostino  
Moto Festarako  
izen-ematea

Uztailaren 2an eta 3an izango den III. Langostino Moto Festarako izen-ematea zabalik dago. Izen ematea mugatua izango da, eta gosaria, hamaiketako, bazkaria, aforria eta opari poltsa sartuko dira barnean. Aurretik 22 euro ordainduko dira, eta bestela 25 euro. Ordaintzeko Euskadiko Kutzako 3035 0141 84 1410023232 kontu korrontean egin beharko da. Edozein informaziotarako, 658 751 591 (Tximas), 670 417 915 (Moski) eta 605 706 982 (Kepa) zenbakietara hots egin beharko da.

## IBARRA ▶

Txontxo udal  
ludotekan  
izen-ematea

Datorren ikasturterako 3-8 urte bitarteko haurrei zuzendutako Txontxo udal ludotekarako aurrematrikulen epea zabalik dago. Izen ematea Uzturpe Ikastolako idazkaritzan edo 943 67 12 99 zenbakira deituz egin ahalko da. Ekainaren 13tik 17ra bitarte egin beharko da.

## IBARRA ▶

'Uztaila oporretan  
euskaraz'-en  
izen-ematea

Uztailaren 4tik 29ra astelehenera ostiralera egingo da Uztaila Oporretan Euskaraz, jolasak, txangoak eta irteerak egingo direlarik. 1993ko urtarrilatik 2001eko abendu bitarte jaiotako haurrentzat zuzendua izango da. Uzturpe Ikastolan egingo da izen ematea, 9:00etatik 12:30era eta 14:30etik 18:00etara. Informazio gehiagorako: 943 67 12 99.

## IBARRA ▶ KIROLA

## McKinley zapaltzea lortu dute

Aizpuru eta Boli ibartarrek eta Navas gazteluarrak egin berri dute



Unai Aizpuru ibartarra eskiekin eta trineoa bultzatuz. HITZA



Anjel Navas gazteluarra. HITZA

## IÑIGO TERRADILLOS

«McKinley gailurrera igotzea lortu berri dugu», horixe diote Alaskatik atzo iritsi ziren berriek, Goikoetxea eta Aizpuru ibartarrek eta Navas gazteluarrak kontatuta.

Pasa den maiatzaren 24ean abiatu ziren Jon Goikoetxea Boli ibartarra eta Josu Feijoo gasteiztarra Alaska aldera McKinley tontorra igotzeko asmatan. Izan ere, zazpi kontinenteko gailurrik altuenak igotzeko duten proiektuaren barnean sartzean da McKinley. Bi mendizaleekin batera, Unai Aizpuru ibartarra, Manu Joubert alegiarra, Anjel Navas gazteluarra, Joana Mendez tolosarra, Juanma eta Jose Jabier Sarasola ordiziarrak, Carlos gasteiztarra eta Borja Pascual madrildarra animatu ziren abentura honetan parte hartzea.

Maiatzaren 28an Talkeena herrixkatik aeroplanoz glaziarrenaino joan ziren, hori izango zen espedizioaren abiapuntua. Behin glaziarrean trineoak prestatu, eta kanpo baseruntz abiatu ziren, batzbeste bakoitzak 60kg zeramatzalarik; gauza berria izan zen hau batzuentzat eta oso gogorrek egin zitzaizkien oinarriko kanporako lau egunak. Eguraldiak, bere aldetik, ez zien batere lagundu, temperatura baxuak, haize gogorak eta elurrak asko zaildu zuelarik oinarriko kanporako

bidea. Nekaturik iritsi zirenez, atsedenerako egun bat hartu zuten bertara iristean.

Atsedenaldira amaituta, oinarriko kanpoko 4.300 metroko utzi eta 5.300 metrora dagoen goi kanpamendua ekipatzera abiatu ziren. Egun beteko lana izan zen, dendak ondo kokatu eta bide batez ere aklimatatzeko aprobetxatu zuten. Gau hartan oinarriko kanpora iristean -30 gradu markatzen zuten termometroak. Goi kanpamendua prest zuten, eta eguraldiari begira egotea geratzen zitzaie, gailurrera igotzeko egun egokiena aukeratzeko.

## Gailurrera bidean

Ekainaren 5a: Unai Aizpuru egun berean oinarriko kanpogailurra-oinarriko kanpo egitea erabaki zuen. Oinarriko kanpotik gailurrera 1.800 metroko desnibela dago, 10 ordu inguruko ioigera kalkulatu zuten ibartarrek. Goi kanpamenduraino eguraldiak lagundu egin zuen. Arratsaldean, 14:00ak aldera abiatu zen, gailurrera, eta 19:00etan lortu zuen. Gailurrean lasai egon eta beharantz abiatu zen, goi kanpamendura. Han beste kideekin egin zuen topo, hurrengo egunean gailurrera igotzeko asmoz bertaratuta baitziren. Agurtu eta oinarriko kanpora joan zen Aizpuru.

Ekainaren 6a: Boli, Navas eta beste 6 kideak goizean goiz abiatu ziren gailurrera. Eguraldiak oraino honetan ez zuen batere lagundu, eta metro batzuekin egin zuten mendizalek atzera egin zuten. Hotz handi-ekin aurrera egin zuten gainerakoek eta asko sufritu eta gero gailurrera igotzea lortu zuten Bolik, Navas-ek, Borjak eta Karlosek. Tolosako 750. urtemugako logotipoa utzi eta beharrezko bidea hartu zuten.

Alaskatik bidalitako informazioaren arabera, uneotan, Talkeenan aurkitzen dira gailurra lortu duten mendizaleak. Gainerakoak oinarriko kanpamenduan daude eguraldi onaren zain, berriro ere gailurrera noiz abiatuko prest.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

**Jogurta**

Mahala baserría - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**ARAMBURU**

**Salgai (Tolosa).** Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m2, Bista zoragarriak.  
**Salgai (Tolosa).** Pisua Belate Ibilbidean, Bista zoragarriak  
**Salgai (Tolosa).** Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate Ibilbidean.  
**Alokatze (Alegia).** 3 logelako pisua, Altzarnekin.  
**Alokatze (Tolosa).** Lokal komertziala Errementari kalean.  
**Alokatze (Tolosa).** Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidean.  
**Alokatze (Tolosa).** Garajea Euskal Herria kalean.  
**Alokatze (Salou).** 4 edo 6 laguntzako 2 logelako apartamentua. Igerilekuarekin.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

**ANOETAKO UDALA**

**DEIALDIA**

**KALE ETA UDAL ERAIKINETAKO GARBIKETA ORDEZKAPEN ZERRENDA**

**EPEA:**  
Ekainaren 13tik 27a bitarte, biak barne  
**ORDUTEGIA:**  
9:00etatik 13:00etara  
**LEKUA:**  
Anoetako udaletxea-Bulego orokorrak

**OHARRA:** Zerrenda osatzeko irizpideak udaletxean eskuragarri  
Anoetan, 2005eko ekainak 9

**ALKIZAKO OSTATU JATETXEA**

**ITXITA EGONGO DA EKAINAK 13TIK 20RA**

**Esperientzia handia duen ileapaintzailea behar da**

Ordutegi interesgarria  
943 67 19 34

## LEITZA ▶ KULTURA

# Bortzirietatik etorriko da Giltzarria, gaur, kontzertua ematera

Bortzirietako Gazte Abesbatzak, elizan egingen du emanaldia, kantuz gain bestelako ezustekoak ere eskainiz

JAIONE ASTIBIA

Giltzarria Bortzirietatik heldu da: gazteak dira; dakitena eta gustuko dutena erakustera heldu dira. Gaur, 20:30ean hasita, Leitzako elizan.

Bortzirietako Gazte Abesbatza da, Giltzarria. 20-30 Urteko, 30 bat kantarik osatutako abesbatza. Eta kontzertu bat «eman nahian» omen zirelarik, hemen bertako Asketari galdegin zioten «ia etor ote zitezkeen», halaxe adierazi zion HITZARI atzo, Asketako lehendakariak. Eta horra, hementxe dira.

Horrek berak aditzera eman zuzenez, «polifonia eta folklore saileko kantuak» eskainiko ditu, «dozenatxo bat edo», Isabel Lakar lesakarra zuzendari duen abesbatzak. Gainera, «ezustekoren bat edo izanen dela iragarri ziguten. nonbait pianoren bat ere ekarri behar dute eta kantatzeaz gain, musika ere izanen da. Hortik aurrerakoa, ez jakin», zioen. «Ordu bete inguruko saioa egingen dute gutxigorabehera», azaldu zuen jarraian. Bortzirietakoe-kin batera, Elizondoko abesbatzako hainbat kide ere etorriko

omen dira, laguntzaile gisa, bi abesbatzen zuzendaria bera izaki eta.

Bi abesbatzek elkar ezagutzen dute honez gero. Mendialdeko Abesbatzen Elkartekoak dira biak eta topaketetan parte hartzen dute. Bestalde, Asketako hainbat kide, laguntzaile gisa ere joan izan omen dira Austriara *Giltzarriarekin*.

Hurrengo hilabeteetan, gaurko bisitaren ordaina egitekotan da Asketa, Igantzira joanda: «Herriatik kanpo abesteko aukera politik izaten dira trukaketa hauek», zioenez.

## LEITZA ▶ MUSIKA



Bouhiak Basauriko kaleetan eskainitako emanaldi bat. HITZA

## Bereber herri musika entzungai Torrean gaur

Bouhia talde berebertarrak musika eta dantza ikuskizun koloretsua eskainiko du

J. ASTIBIA

Gaur gauerditik aurrera Torrean, Bereber herriko herri-musika entzuteko aukera izanen da.

Bouhia taldea da etortzeko bertara. Hauek berebertarrak dira, eta esan bezala, beren herri musika eskainiko dute. Esan, beren herriko tresnez gain, baxua edo saxoa ere erantsi dituztela eta ukitu moderno ere ematen diotela.

Baina, musikaz gain, dantza ere ikusteko aukera izanen da.

Izan ere dantzariak ere ikuskizunaren parte garrantzitsu baitira talde honetan: *Sabel dantza* eskainiko dute.

Taldeko partaide gehienak Bereber herrikoak dira. Saharako basamortuko herri nomada, nahiz orain Bouhiako kideak hemen Euskal Herrian, Basaurin, bizi. Besteak, berriz, bi kide edo, hemen bertakoak.

Guztien artean, musika eta dantza ikuskizun koloretsua osatzen dute, Bereber herriko jantziak soinean.

## LEITZA ▶ GIZARTEA



## Politika fiskal justu eta solidarioaren alde

J. Astibia ▶ Atzo, merkaturako garaian, «politika fiskal eta solidarioaren aldeko deklarazioa» eginenez, hainbat herritarren sinadurak bildu zituen LAB sindikatuak eta horretan ariko da, hilaren 15a arte. Besteak beste «iruzur fiskalaren kontra

borrokatuz, gehien dutenek gehiago ordain dezaten» eskatzen dute, «kalitate oneko zerbitzu publikoen eta babes sozial hobea» lortzeko bide modura. Bildutako sinadurak, Nafarroako Gobernuan aurkeztuko omen dituzte. J. ASTIBIA

## LEITZA ▶ PILOTA

## Plazako eskupilotako final-laurdenak iritsi dira

Gaur jokatu dira, 17:00etatik aurrera

J. ASTIBIA

Hamasei bikote, lau talde. Ligaxka jokatu eta talde bakoitzetik, aurreneko biak sailkatu dira final-laurdenetarako, irabazitako partidu kopuruaren ariora eta egindako eta aurka jasotako tantoen ariora: zortzi bikote, beraz.

Asteburu honetan jokatu dituzte partiduak, talde bako-

tzeko buruak, besteetako bigarrenekin, gurutzatuz. Irabazitunak finalerdietarako sailkatuko dira zuzenean. Hauexek aukera horretaz baliatzea doazanak: Aldaia-Olano/Andueza-Agirre; Zeballos-Iriarte/Alduntzin-J. Sagastiasotako tantoen ariora: P eta A. Sagastibeltza/J. eta I. Mariñelarena; eta A. eta I. Makazaga/J.J. Mariñelarena-Larraia.

## iragarki laburrak ▶

**Sukaldeko laguntzailea, zerbitzariak.** Hurrengo deialdiak: herri erakundeak. Informa zaitez. 943 65 01 93 telefonoan.  
**Gidariak.** Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritzak. Astean

35 ordu. Informatu. 943 65 01 93.  
**Suhiltzaileak.** Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Herri haurtzaindegia.** Honako

lanpostu hauek bete behar dituzte: haurtzainak, hezitzaileak. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Administrari laguntzaileak.** Plaza libreak udaletarako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenetik ostiralera,

8:00etatik 15:00etara. 943 65 01 93.  
**Laborategia.** Plaza libre: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzak. Informazioa doan. 943 65 01 93.  
**Peoiak, ofizio langileak.**

Lanpostu finkoak: igeltsuak, argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko ekainaren 11, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

21

hotzena

15

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

943 30 43 46

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Haur Dantzarien I. Topaketa: 17.30ean desfilea, 18.00etan saioa plazan.  
**Amezketak.** Peter Robersen mimo saioa 17:00etan, plazan.  
**Amezketak.** Txekor-jatea Ugarte auzoan 14:00etan, frontoian.  
**Lizartza.** Gose greban dagoen Haimar Altunari elkartzasuna adierazteko kontzentrazioa 13:00etan.  
**Tolosa.** Ibilgailu Klasikoan XI. Erakusketa. Gaur eta bihar, Ferialekuan. Gaur, II. Oria zirkuitua, 18:00etatik 20:00etara; aurretik, Ander Vilariñoren kart erakustaldia.  
**Tolosa.** Pako Eguna. egun osoz, Parke Jurasikoan: saskibaloia, aerobitona, aurpegiak margotzea, plastilina eta lokatz eskulanak, bazkaria, patin ibilaldia, karaokea, mahai tenisa, haur jolasak...  
**Tolosa.** Harizpe elkarteko bazkide zaharrenei omenaldia: 11:30ean, meza Jesusen Zerbitzarietan; ondoren, mokadutxoa Harizpen; 14.30ean, bazkaria eta omenaldia, Fronton jatebtxean.

**MUSIKA**

**Irura.** Dj Josi-ri omenaldia Mission 439 diskotekan: Dj Julius, Dj Rober jazz eta Dj Dim-X&dj Guim's.  
**Leitza.** Arabiar festa. 00:30ean, Bouhia taldearen kontzertua, Torrean.  
**Tolosa.** Peiremans+ eta Foralettes. 22:30ean, Bonberenean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Un rey en La Habana.* 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Leitza, Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
 Tolosa, Etxebeste, J.M. Gernikako arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 10.

**IRRATIA**

**Txolarre (FM 107)**  
 10:30-13:00. Ibarroko Gimnastika Erritmikoko neska taldea, Eskandinavia Villabonako bi gazteren eskutik, Amaia Goikoebea musika kontuekin..

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

# 25 urte akordeoi doinupean

**TOLOSA ▶ 25 urte bete ditu Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak; ikasle ohiak eta egungoak elkartuz, jaialdi berezia egingo dute hilaren 26an Leidorren**



Esker-eskuin: Joxe Mendizabal, Xabier Zubeldia, Andoni Iturzaeta, Isitxo Larrañaga, Axier Moreno eta Andoni Lizaso, herenegun, Trianguloan, kartelaren aurkezpenean. LEIRE MONTES

**LEIRE MONTES**

Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak 25 urte bete ditu. 25 urte herriko musika tradizioaren alde lan egiten. 25 urte herriaren nortasuna islatzen. Mende laurdena ospatzeko, jaialdia antolatu dute orkes-

trakoek. Herenegun arratsaldean aurkeztu zuten ekitaldia iragartzen duen kartela. Musika jaialdi aparta egingo dute akordeoi orkestrakoek sanjoanetan, hilaren 26an, 12:30ean, Leidorren. «Jaialdi berezia egin nahi genuen, eta urte hauetan orkestratik pasa-

tutako ikasleak elkartzea ideia polita iruditu zitzaigun», azaldu zuen Isitxo Larrañagak. Joxe Mendizabalen esanetan, «jendearengandik oso erantzun ona jaso dugu. Batzuek ganbaratik jaitsi egin beharko dute akordeoia, beste hainbatek beharbada ez du jakingo non

gorde duen ere... Baina denak agertu dira oso pozik».

Hala, 110 bat lagun elkartu dituzte jaialdirako, ikasle ohiak eta egungo ikasleak. Belaunaldien arabera, hiru taldetan banatuko dituzte: «Taldea bakoitzak bere emanaldia eskainiko du, baina amaieran denok elkarrekin joko dugu», azaldu zuen Xabier Zubeldiak. Musika gain, taldearen historia jasotzen duten argazkiak eta irudiak proiektatuko dituzte. Sarrera doan izango da.

Kontzertua Isidro Larrañagari omenaldia izatea nahi dute guztiak: «Hura izan da beti orkestraren *alma mater*. Jaialdian hark ere joko du. Ikasle ohi asko, egia esan, jotzera animatu da Isidro han egongo dela jakitean». Era berean, emanaldia «guztiak festa giroan elkartzeko aukera» izatea nahi dute orkestrakoek.


Udalari «emandako laguntza guztia bereziki eskertu» zioten. Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziak ere, Udalaren izenean, eskerrak eman zizkien musikariei: «Udala laguntzeko dago beti. Gure babes osoa dugu, herriaren nortasun musikalaren alde egin duzuen guztiagatik».

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Eneida Saldias (Anoeta).

Gaur 5 urte. Zorionak ebekoen eta birramonen partez.



Familiaeta neskalagunaren izenean eskerrak asko bihotzez une gogor hauetan agurra bidali diguzuen guztiei eta modu batera edo bestera zuen laguntza eskaini diguzuen guztiei. Aldi berean, **bihar, igandea**, Aresoko Igokunde Elizan eguerdiko **12:00etan** bere arimaren alde egingo den mezara gonbidatzen zaituztegu.



**URTE ASKOAN**

Zorionak Alegiako bi sorgin panpoxenei, lehenago asteburuan ezagututako bi mutil ederren partetik...? 15 urte, eta beste hainbat muxu.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
 Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
 HITZAren egoitzetara:  
 Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
 Udaletxeko bulegoa - LEITZA  
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
 Mila esker!